

ASTEARTEA

2020/03/10

8. urtea, 1.203. zenbakia

107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €



Eskualdeko feministek ekitaldi berezia egin zuten larunbatean Anoetan; aliantzak josteko baliatu nahi izan zuten eguna. JON MIRANDA

Indarrak batzeko garaia dela aldarrikatu dute

Eskualdeko kaleak morez jantzi dira asteburuan; Martxoaren 8ko ekitaldiak izan dira herriz herri, baina Anoetan larunbatean eta Tolosan igandean egindako deialdiek bildu dituzte feminista gehien // 4-5

Aiztondoko Gazte Asanbladak espazio bat eskatu du

Kaxilda gaztetxea hutsarazi du Ertzaintzak; «kale gorrian ezin da gazte langileon antolakuntza gauzatu» esan dute // 3

Greba mugagabea Asteasuko Siemens Gamesan

Txandaka aritzen direnak daude greban, langileen artean dagoen arrakala salatzeko // 3

Mujikak eta Vicentek hirugarren egin dute urrezko binakakoan

Larrañagak eta Rekondok irabazi dute Urrezko Aizkolari Txapelketa // 7



ataria
argazki lehia

Mozorro hoberenaren bila




ALDEKOA



Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Bozkatu hemen



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria





LURLAN
BASERRITIK ZURE ETXERA
200. KATIBIA ETXERA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria

Aurrekontuko 20.000 euro nora bideratu erabaki beharko dute

Berrobiko Udalak herritarren esku jarri du udal inbertsioaren zati bat; martxoaren 20ra bitarteko epea izango dute herriari begirako proposamenak aurkezteko

Irati Saizar Artola Berrobi

Berrobiko Udalak partaidetzako aurrekontuen prozesua jarri du martxan, herritarrek 2020ko ekitaldiko udal inbertsioen zati batekin zer egin aukeratu dezaten. Horretarako, udal gobernuak 20.000 euroko partida bat bideratu du herritarren ekimenetatik sortzen diren proposamenak aurrera eramateko.

Ohar baten bidez, Berrobiko alkatea den David de Miguelek azaldu duenez, partaidetza prozesuaren helburua da herritarrek udalaren erabakietan parte hartzea, bertako bizi kalitatea hobetuko duten ekimenak proposatzeko. Horrela, «udal kudeaketa herritarrengana hurbiltzen dugu eta euren ahotsa entzuten dugu», esan du. Gainera, «ekimena ahalik eta parte hartzaileena izateko asmoz, gobernu taldetik herriko etxe guztietara gutuna bidali dugu, herritarrek lehen aldiz egingo den partaidetza aurrekontuetan nola parte hartu behar duten azaltzeko», gaineratu du.

Martxoaren 2tik 20ra bitarte, prozesuan parte hartu ahal izango dute Berrobin erroldatutako 16 urtez gorako pertsona guztiek zein herriko elkarteek. Egiten dituzten proposamenak honakoak izan beharko dute: herrira edo herritarrengana zuzendutakoak, udalaren esparrukoak eta udal eskumenekoak, zehatzak eta



Haurren jolasak, 12tik 20ra bitarteko. I. URDALLETA

ekonomikoki ebaluagarriak, eta gehienez 20.000 euroko kostua izan beharko dute. Halaber, ez dira onartuko baztertzailak diren proposamenak. Eskaerak udal erregistroan, liburutegian, edota udala@berrobi.eus helbidera bidalitako mezuan aurkeztu beharko dira.

Jasotako proposamenak udal teknikariek aztertuko dituzte, martxoaren 23tik apirilaren 17ra bitarte. Ondoren, ekonomikoki baloratuko dituzte, proposamen

bakoitzeko kostu orokor bat finkatuz.

Hautatzen diren proposamenak udaletxean egongo dira ikusgai, apirilaren 20tik 30era bitarte. Ondoren, herri-kontsulta egingo da, maiatzaren 4tik 8ra bitarte, proposamenak hautatzeko. Bozka bidez egingo da hautaketa, eta horretarako parte hartzeko orriak bete beharko dira. Behin orri horiek beteta, udaletxean edota liburutegian uzteko eskatu dute.

Zabaldu dute mikroipuina aurkezteko epea

Parte hartzaile bakoitzak, 100 hitz baino gutxiagoko nahi adina ipuin idatzi eta aurkeztu beharko ditu apirilaren 3rako

Irati Saizar Artola Berastegi

Martxan da Berastegiko mikroipuina lehiaketa; hirugarrenez antolatu du udal liburutegiak. Apirilaren 3a bitarte aukera izango da mikroipuina aurkezteko, eta apirilaren 26an izango da sari banaketako ekitaldia.

Aurten ere hiru mailatan banatu dituzte parte hartzaileak: 12 urte bitartekoak batetik, 12 eta 16 urte artekoak bestetik, eta 16 urtetik gorakoak azkenik.

Parte hartu nahi duenak 100 hitz baino gutxiagoko nahi adina mikroipuina aurkez ditzake. Beterie euskaraz izan beharko dute eta gaia libre izango da. Antolatzailerak zehaztu dutenez, sarituak izan ez diren obra original eta argitaratu gabek aurkeztu beharko dute.

Egileak lanaren kopia bat aurkeztu beharko du ordenagailuz idatzita, Arial 12 formatuan eta 2ko tartez idatzia. Lanak izenburu bat izan beharko du, eta ez da sinatu behar. Gutun-azal batean sartu eta maila zehaztu beharko zaio. Horrekin batera, beste gu-

tun azal bat bidaliko da, kanpoaldean lanaren izenburua eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, adina, telefona eta posta elektronikoa zehaztuz.

Epaimahaiak honako puntuak izango ditu kontuan lana baloratzeko garaian: originaltasuna, euskara maila eta narrazioaren egitura.

IPUIN SARITUAK

Sari banaketaren eguna apirilaren 26rako zehaztu dute. Aurretik aurkeztu beharko dira lanak, ordea, epaimahaiak denbora izan dezan guztiak epaitzeko.

Maila bakoitzeko lehenak 50 euro eta Elkar liburu dendan gastatzeko txekia irabaziko ditu, eta bigarrenak, 30 euro eta honek ere, Elkar liburu dendan gastatzeko txekia.

Bestalde, ipuin sarituak urtero kaleratu ohi duten *Aidanen* aldizkarian argitaratuko dira. Lehiaketara aurkeztutako gainetako lanak, aldiz, liburutegiko web orrian argitaratuko dituzte, izenpetuta edo anonimoki, egileak nahi bezala.



EROSLEAK PAGOTXA BILA

Braderie azoka ospatu zen larunbatean, Tolosan. 67 saltokik stock-ean dituzten produktuak kalera atera zituzten egun osoan zehar. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, karpak jarri zituzten babesteko, eta jende mordo gerturatu zen preziorik hoberenaren bila. Egun osoan zehar, haurrentzat tailerrak antolatu zituzten Trianguloan. A. IMAZ



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu



DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LECHE RIO
BREOGAN
partida ikusteko

Martxoak 15, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Atarikideentzat lau sarrera ditugu



Kamerata Euskadivarius

Martxoak 13,
20:30etan, Leidorren.



Fidelio opera zuzean

Martxoak 17,
20:45etan, Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Kaxilda gaztetxea hutsarazi dute

Aiztondoko Gazte Asanbladak euren beharretara egokitzen den espazio bat exijitu die bailarako udalei

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Kaxilda gaztetxea ostiralean hutsarazi zuen Ertzaintzak. Biharamunean, Aiztondo Gazte Asanbladako kideak bailarako udalei zuzendu zitzaizkien: «Aiztondoko udalek eduki duten borondate politikoa ezak egoera honetara ekarri gaitu. Auzi honetan, udalei bere erantzukizun politikoa betetzeko eta ondorioz, gure beharretara egokituko den espazio bat eskaintzeko exijitzen diegu. Kale gorrian ezinezkoa baita gazte langileon antolakuntza gauzatzea».

AZKEN URTEKO GERTAERAK

Aiztondoko Gazte Asanblada duela urte eta erdi sortu zen. Bertako kideek sorrera hori testuinguru honetan kokatzen dute: «Bailara mailan instituzioetatik at antolatzen den mugimendu zein formakuntza politikoa

gabeziak, eta gazteen artean lokaletan eta tabernetan ematen den harreman eredu kontsumistaren kezka bultzaturik. Kezka hauek ipar izanik, asanbladako kideei gabezi hauei aurre egiteko baldintza erreala sortzea ahalbideratu digun espazio fisiko baten beharra azalarazi zitzaizgun».

Duela urtebete, martxoan, Zizurkilgo Udalarekin harremanetan jarri zirela azaldu zuten: «Gure proiektua aurkeztu eta hau gauzatzeko espazio fisiko baten beharra adieraziz». Gazte asanbladako kideen esanetan, udalak proiektuarekiko adostasuna azaldu zien, «baina ez zizun inongo momentuan gure jardura aurrera eramanez ahal izateko espaziorik bermatu, ezta gure proiektua ahalbideratu zezakeen gunerik eskaini ere».

Zizurkilgo Udalaren «ezezkoaren» aurrean, «espazio bat birja-

betzea» erabaki zuten. «Urte luzez kapital metaketara kondentuta egon zen espazio batean, langile autonomia sustatu, klase boterea eraiki eta autodefentsa artikulatzeko gune bat bihurtzeko elkarlanari ekin genion», esan zuten gazteek.

Horrek errepresioa berehala ekarri zuela gogoratu dute: «Espazioaren legezko jabeek justizia burgesaz baliaturik gure aurka prozesu judiziala ireki zuten». Bi auzipetu izan ziren orduan, usurpazio delitu arina egotzita. Hortik «hiru aldeko negoziazio mahaia» sortu zela azaldu dute Aiztondoko Gazte Asanbladako kideek, «espazioa bereganatuerabili ahal izateko akordio batera iristeko helburuarekin». Negoziatio mahaia horretan ondorengoak egon zirela jakinarazi dute gazteek: «EH Bilduko Zizurkilgo Udala, birjabetu berri genuen espazioaren jabeak eta gu.



Aiztondoko Gazte Asanbladak agerraldia egin zuen larunbatean. A.I.

Ondoren, negoziatio mahaia horren porrota etorri zen. Soilik borondate politikoa ezaren edo interes ekonomiko indibidualistaren ondorioz etorri zela ulerturik».

Adostasun ezaren segidan, «justizia burgesaren baitako prozesu judizialak aurrera jarraitu zuten, eta irailaren 24an epaitegietara deitu zituzten Kaxildako bi kide. Epaiketa bertan behera geratu zen, eta ondorioz, abenduaren 3an berriro epailearen aurrera joateko agindua

jaso genuen», esan zuten agerraldian. Epaileak berehalako kaleratzea eta 1.080 euroko isuna agindu zituen. Ertzaintzak agindua ostiralean bete zuten, Kaxilda Gaztetxea hutsaraziz.

«Burgesiak ez du inoiz onartuko bere boterea kolokan jarri dezakeen inongo agente zein jardun politikorik», hausnartu zuten Aiztondo Gazte Asanbladako kideek. Hala eta guztiz ere, udalei egindako eskariekin batera, argi utzi nahi izan dute «borrokan jarraituko» dutela.

Atzotik greba mugagabea dira Asteasuko Siemens Gamesan

Asteasuko lantegian txandaka aritzen diren langileak daude greban eta langileen artean dagoen arrakalarekin amaitzea eskatzen dute, soldata eta lan baldintzez ari dira

Jon Miranda Asteasu

2019. urte hasieran hasi ziren lan hitzarmen berria negoziatzen Asteasuko lantegian. Hasiera batean, langileek enplegu bermea eskatu zioten enpresari, aurrera begira egon zitezkeen mugimenduen aurrean langileek Asteasuko lantegian jarraitzeko segurtasuna izan zezaten. LAB sindikatuko langile ordezkari den Josu Zubillagak azaldu duenez, «dezenete» kosta zitzaaien langileei berme hori eskuratzea, baina mobilizazio batzuk egin ondoren, enpresa arduradunen aldetik konpromisoa lortu zuten, hitzarmenak iraun bitartean, enplegua bermatuta edukitzeko.

Asteasuko Siemens Gamesako langileek bigarren eskakizun bat jarri dute mahaia gainean hitzarmena negoziatzerako orduan: «Langileon artean dagoen arra-



Asteasuko txandakako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo Sarriurengo egoitzaren aurrean. ATARIA

kalarekin amaitzea eskatzen dugu». Zubillagaren esanetan, langile batzuen eta besteen arteko diferentziak geroz eta nabar-

menagoak dira Asteasun: «Gehienbat tailerrean errelebotan aritzen garen langileak gara lan ordutegi txarrenak ditugu-

nak, kontziliazioarako oztopoak baino izaten ez ditugunak eta gutxien irabazten dugunak», adierazi du LABeko delegatuak.

Langile ordezkarien esanetan, enpresa arduradunek hartu dituzten azkeneko neurriek areagotu egin dituzte langileen arteko diferentziak. «Nazkatuta daudela esan digute langileek. Lantegi berdinean lanean aritu eta batzuk Ferrarian doazela eta beste batzuk oinez gabiltzala ikusita. Bada garaia gure lana errekonozitzeko». Errelebotako langileek martxoaren 2an asanblada egin zuten egoera honen inguruan eztabaidatzeko. Martxoaren 3an eta 5ean greba egitea erabaki zuten. «Emaitzak argiak izan ziren, 79 baieztako, 32 ezezko eta 3 zuri», esan du Zubillagak. Lehengo astean, bi egunetan, %100eko jarraipena izan zuen grebak eta ikusita enpresarekin adostasunik ez dela lortu, atzotik greba mugagabea hastea erabaki dute Asteasun txandaka aritzen diren langileek.

Lehen greba egunean euren egoeraren berri ematera joan ziren atzo Siemens-Gamesaren Sarriurengo plantara eta Guardia Zibilak elkarretaratzea disolbatu eta langile bat identifikatu zuten. Bihar, Zamudion enpresak duen egoitza sozialean egingo dute protesta, eta gaur, Asteasun lantegiaren aurrean egingo dute elkarretaratzea eguerdian.



Tolosaldeko Asanblada Feministak deituta emakume ugari elkartu ziren larunbatean Anoetan. Plazaren erdian irudikatu zuten saretzea. J.M.

Saretzen jarraitzeko deia

Aldarri feministak izan dira nagusi asteburuan eskualdean; emakumeak Anoetan bildu ziren lehenik, eta igandean mobilizazioak eta bestelako deialdiak egin zituzten

J.M.-L.C.

Aurtengo Martxoaren 8an ez da greba deialdirik egon, baina emakumeek azken urteetako in-dar berbera erakutsi dute eta ka-

leak hartu dituzte. Tolosaldean bi hitzordu nagusi egon dira; ba-tetik, Tolosaldeko Asanblada Fe-ministak Anoetan larunbatean egindako bilkura, eta bestetik, igandean bertan Tolosan egin-

dako manifestazioa *Josi ta josi, Tolosaldea feminista!* lelopean. Bestelako ekitaldiak egon dira baita ere herriz herri, eta bakoitzak bere modura ospatu du Emakume Langilearen Nazioar-teko Eguna. Guztietan gailendu dira aldarri feministak eta guztietan nabarmendu da asko da-goela egiteko oraindik. Tolosako M8aren manifestazioan ere era-soen aurrean indarrak antolatu beharraz aritu ziren eta emaku-me guztiak gonbidatu zituzten Tolosaldeko Asanblada Femi-nistak hileroko Tolosan egiten di-tuen bileretara.

ANOETA, HAZIA

Larunbatekoa egun berezia izan zen eskualdeko mugimendu fe-ministarentzat. Aiztondotik martxa bat eta Tolosatik beste

bat, bi zutabetan iritsi ziren fe-ministak Anoetara. Han egin zu-ten ekitaldi nagusia. Martxa mo-reei Batumorek egin zien harre-ra. Txalo artean agurtu zuten elkar eskualdeko feministek, eta ondoren, eskuak morez pintatu-ta feminismoaren ikurra margo-tu zuten. Segidan, Nekane Peña-garikano kazetariak adierazpena irakurri zuen, eta esan zuen jos-tea jakintza dela. «Gure burua formatu dezagun hortaz, hezi dezagun, eta izan zentzu kriti-koa. Hariak ere behar ditugu, baina alperrik dira josten ez bal-din badakigu. Hariak kenduko dizkigute, baina jakintza ez digu inork ostuko gure barrutik. Geu izan gaitezke hari». Hariak elka-rrekin josiz sortutako sarearen erdian jarri zuten gero, aurrez pintatutako ikur feminista eta

Erre zenituzten sorginen kantua abestu zuten elkarrekin, irrintzi artean eta Batumorek lagundu-ta. Jaia amaitzeko Anoetako hainbat emakumek prestatuta-ko jakiak dastatu zituzten, elkar ezagutzeko jolas dinamikoak egin zituzten eta elkarrekin afal-du zuten.

Larunbateko saretzea eta gero igandean egin zuten M8ko ma-nifestazioa. Tolosako kaleak bete zituzten berriz ere eta alda-rri feministak izan ziren nagusi. «Emakumeok kaleak hartu be-har ditugu, bisibilizatu egin be-har gara eta gure borrokak leku guztietara iritsi behar du, mun-du guztia sentsibilizatu dadin gaur egun daukagun egoeraren aurrean», esan zuen Eli De Arri-ba Tolosaldeko Asanblada Femi-nistako kideak.



**harpidedun izateak
badu saria**

ERRIGORA proiektuko 3 saski

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu ATARIAko ZOZKETAK atalean. Parte hartu hilabete honetan, martxoaren 2tik, martxoaren 16ko 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, asteartea, argitaratuko ditugu.



Anoetan batukadak eman zien ongietorria martxa moreei, ondoren feministen ikurra irudikatu zuten. J.M.



Martxoaren 8an bertan Tolosan egin zen manifestaziorik jendetsuena. L.C.



Aldarriak izan ziren nagusi Tolosako igandeko mobilizazioan. L.C.



Igandean bertan, arratsaldean, mosaikoa egin zuten Villabonan. L.C.



Bidania-Goiatzen ere ospatu zuten; bertso-bazkaria egin zuten Saiaz-en. ATARIA



ISASTEGI
~ SAGARDEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

TXOOOTX

ANIMATU!!

URTARRILAK 18
APIRILAK 30

TOLOSATIK AUTOBUSA

XVIII SAGARDO TXAPELKETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIAK **2019 IRABAZLEA**

KIROL EMAITZAK

Areto futbolak

GIPUZKOAKO SENIOR MAILA

12. jardunaldia
Eguzki-Garoa – **Anoeta** 5–2

15. jardunaldia
Tolosala Orbela – **Laskorain** 1–13
Sanpedrotarra – **Saman. Orixe** (aldatuta)

Sailkapena
3. **Laskorain** 25p
4. Eguzki-Garoa 19p
5. Eskoriatza 18p
6. Idiazabal 17p
7. **Anoeta** 16p
8. **TEEP Samaniego Orixe** 4p
9. **Tolosala Orbela Taberna** 0p

Hurrengo jardunaldia
Laskorain (3) – Ordizia (1)
Sam. Orixe (8) – **Anoeta (7)**
Tolosala Orbela (atsedena)

Futbola

HIRUGARREN MAILA

28. jardunaldia
Portugalete C. – **Tolosa CF** 4–1

Sailkapena
16. Urduliz 28p
17. **Tolosa CF** 26p
18. Deusto 26p
19. Lagun Onak 26p

Hurrengo jardunaldia
Tolosa CF (17) – SantutxuFC (9)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

22. jardunaldia
Tolosa CF ‘B’ – Leintz Arizmendi 1–1

Sailkapena
1. Leintz Arizmendi 59p
2. **Tolosa CF ‘B’** 51p
3. Intxaurdi 45p

Hurrengo jardunaldia
Lagun Onak (5) – **Tolosa CF ‘B’ (2)**

ERREGIONAL PREFERENTEA

22. jardunaldia
Soraluze – **Danena** 3–3
Billabona KE – Aloña Mendi 0–1
Tolosa CF ‘B’ – Ikasberri 4–2

Sailkapena
4. **Billabona KE** 39p
6. Zumaiako 32p
7. **Danena** 30p
8. Ilintxa 29p
14. **Tolosa CF ‘B’** 22p

Hurrengo jardunaldia
Orioko FT (16) – **Tolosa CF ‘B’ (14)**
Ikasberri KE (12) – **Billabona KE (4)**
Danena (17) – Idiazabal (11)

LEHEN ERREGIONALA (KOPA)

5. jardunaldia
Euskalduna – **Intxurre KKE** 3–4

Sailkapena
1. Antigua Luberri 10p
2. Lazkao 9p
3. Euskalduna 9p
4. **Intxurre KKE** 9p
5. Irauli 4p

GORENGO MAILA, IGOERA FASEA

6. jardunaldia
Intxurre KKE – Santo Tomas L. 0–4

Sailkapena
1. Amaikak Bat 11p
2. Leintz A. Aloña 10p
6. Intxaurdi 3p
7. **Intxurre** 0p

Hurrengo jardunaldia
Amaikak Bat (1) – **Intxurre (7)**

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

23. jardunaldia
Tolosa – Jacar San Antonio 17

Sailkapena
2. Uharte 38p
7. El Pilar Maristas 21p
8. **Tolosa Eskubaloia** 21p
9. Avefor 20p

Hurrengo jardunaldia
Uharte (2) – **Tolosa (8)**

Saskibaloia

GIZONEZKOEN 1. MAILA

19. jardunaldia
Redline Mekanika TAKE 52
Getxo 56

Sailkapena
1. LBC cocinas.com 16–2
6. Leioa Sbt 8–9
7. **Redline Mekanika TAKE** 8–9
8. Getxo 8–9
9. Aranguren Mutilbasket 8–8

Hurrengo jardunaldia
Atletico S. Sebastian (10) – **TAKE (7)**

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

15. jardunaldia
TAKE – Casa de la Rioja 39–28

Sailkapena
1. Atletico San Sebastian 13–2
5. Ostadar 11–4
6. **TAKE** 8–7
7. ArriBKL 7–8
8. CD Internacional 6–9

Hurrengo jardunaldia
CD Internacional (8) – **TAKE (6)**

Jakari finalerdietako ligaxkako lehen puntuak ihes egin dio

Peña II eta Aranguren ek lehen puntu eskuratzea lortu dute Elordi eta Ettxeberriaren aurka

Erredakzioa

Binakako txapelketa finalerdietan sartuta da, eta ligaxkako lehen partidari Erik Jaka lizar-tzarrak ezin izan zuen lehen ga-raipena lortu. Pronostikoak hau-tsiz, Iruñeko Labrit pilotalekuan, Jakak eta Zabaletak amore eman behar izan zuten Ezkurdia eta Martijaren erakustaldiaren au-rrean. 22 eta 16 irabazi zieten bi nafarrek.

Ezkurdiak erakustaldia eman zuen partida guztian zehar, eta Martija atzelariak bikain lagun-du zion; egin behar zuena egin zuen, Zabaletari neurria ondo hartuta. Ezkurdiak bikain balia-

tu zuen bere atzelariaren lana, eta beste behin, partidako zama hartuta bikain jokatu zuen. Era-soan jokatu zuen, eta Jakak Ez-kurdiaren erritmora mugitu be-har izan zuen defentsan. 8-6 eta 13-8 joan ostean, 17-16ra gertura-tu ziren. Tanto batera gerturatu arren, partidak hor egin zien ihes. Orain, lehen partida galdu-ta, Jakak eta Zabaletak hurrengo bi jardunaldietan ia ezingo dute hutsik egin.

Bigarren mailako binakako txapelketa jardunaldi bat aurre-tik doa, eta asteburuan, Urruti-koetxearen baja tarteko, Peña II tolosarrak Erasun zizurkildarra izan zuen atzelari lanetan. Li-gaxkako lehen jardunaldia galdu bazuten ere, oraindik bizirik dira ostiraleko partida irabazi eta gero. Peña II eta Erasunek lortu zuten 22ra iristea, Elordi eta Ettxeberria hamar tantotan utziz. Peñak jarri zuen erritmoa, eta

bera nagusitu zen partidari. Ho-nela, bi jardunaldietatik bat pol-tsikoratu dute, Zabala eta Ruiz bikoteak bezala. Agirre eta Eski-roz bikoteak doaz bitik bi irabazi-ta.

HURRENGO PARTIDAK

Lehen mailakoen txapelketari, Erik Jakak berriz ere Iruñeko La-brit pilotalekuan jokatu du Za-baleta bikotearekin batera, Laso eta Albisuren aurka. Larunbate-an izango da jardunaldia. Igan-dean, berriz, Eibarren, Olaizola eta Urrutikoetxea, Ezkurdia eta Martijaren aurka lehiatuko dira.

Binakako Promozio mailako-en kasuan, Peña II-Aranguren ek ostiralean jokatu dute partida, Logroñoko Adarraga pilotale-kuan, Zabal-Ruiz bikotearen aurka. Eta beste jardunaldia, igandean jokatu dute Agirre-Eskiroz eta Elordi- O. Ettxebe-riari.

Miren Larrartek finala jokatu du Irunen

Erabaki da Master Cup Txapelketako finala, Larrarte-Ruiz de Larrinaga eta Arrizabalaga-Aldai

Erredakzioa

Emakume Master Cup Binakako Txapelketako finala jokatu du Miren Larrarte bidaniarrak, pilo-ta mistoa modalitatean. Martxo-aren 29an jokatu du finala, Irungo pilotalekuan. Igandean jokatu ziren finalerdiak Beasai-nen, eta Miren Larrarte eta Olatz Ruiz de Larrinagak osatzen duen bikoteak partida irabaztea lortu zuen Leire Garai eta Nora Men-dizabalen aurka.

Emozioz betetako partida jo-katu zuten bi bikoteek. Ausart jo-katu zuen bidaniarrak aurrean, eta atzean bikain hartu zuen mendean Ruiz de Larrinaga na-



Beasaingo finalerdietan, Larrarteren partidako une bat. EMAKUME MASTER CUP

farrak, Mendizabal gipuzkoarra. 22 eta 19 bukatu zen partida, es-kualdeko ordezkariek finalerako txartela lortuta.

Lehen partidari, Gentzane Al-dai eta Olatz Arrizabalagak, Arrate Bergara eta Amaia Aldai-ren aurka jokatu zuten partida. Erraz irabazi zuten partida Al-

dai-Arrizabalaga bikoteak, aur-kariak 11 tantotan utziz.

Beasaingo pilotalekua, beste behin, jendez bete zen bi finaler-diak ikusteko.

Honenbestez, Larrarte eta Ruiz de Larrinagaren aurka joka-tu dute finala hilabete amaieran, Aldai eta Arrizabalagak.



Anne Agirrek eta Uxue Olanok irabazi dute txapelketa. ATARIA

Anne Agirre eta Uxue Olanorentzat izan da Udaberri txapelketa

Euskal Herriko Irekia-ko finaletan ez bikote horrek, ezta Iker Zubeldiak eta Aratz Irazustabarrena osatutakoak ere, ez dute lortu txapelik

Intxurre Pilota Elkarte

Ostiralean eman zioten hasiera iragarritako final errondari, Zarautzen. Anne Agirrek eta Uxue Olanok, Etxaide eta Azkue izan zituzten aurrez aurre eta estu joan zen partida. Hogeita hamarrera zen partida eta 23-27 atzetik zirela iritsi ziren azken txanpara. Orduantxe lortu zuten Agirrek eta Olanok joko bolada onena ateratzea eta jarraian egin zituzten hogeita hamarrera bitarteko zazpi tantoak. 30 eta 27 izan zen azken emaitza eta beraientzat izan dira Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatzen duen Udaberri txapelketako gomazko palletako jubeniletako irabazleen garaikurrak.

Bikote honek berak Mallabian zuen hitzordua larunbatean, Euskadiko Pilota Federazioak antolatzen duen Euskal Herriko Irekia txapelketako 3. mailako fi-

nalean. Lekunberriko bikoak ez zien aukerarik eman. Hasiera hasieratik hartu zieten aurrea eta nafarrentzat izan ziren txapelak, 30-16 irabazi ondoren.

Donostiako Atano III.ean, antzekoa gertatu zitzaion Iker Zubeldia eta Aratz Irazustabarrena-ri ere Pilotarien Txokoa txapelketako finaleran. 9-22 galdu zuen Zubeldiak 20 urtez azpiko finala Zalakain oiartzuarra lagun zuela; bikote sendoa osatu zuten Arribilaga eta Azkarragak, frontisetik urruti jartzen zuten pilota gehienetan, eta ez zieten luzimendurako aukera askorik utzi; Irazustabarrena, berriz, eskuak justu baina okerrago, oso larri ibili zen nagusien finalean eta ez zuen bere maila emateko modurik izan; ederki aprobetxatu zuen hori Santxo usurbildarrak erakustaldia emateko, eta erraz irabazi zuten berak eta Arangurenak: 22-7.

Mujika eta Vicente hirugarren, urrezko binakako txapelketan

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa jokatu da, eta Mikel Larrañaga eta Jon Rekondok irabazi dute; 23 urtez azpikoan, Ezpeleta eta Zabala txaramarra hirugarren sailkatu dira

Erredakzioa

Larunbatean urrezko aizkolari eta harri-jasotzaileen finalerako bost txapel nagusiak jokatu ziren, Azpeitian. Horietako bitan aritu ziren eskualdeko ordezkariak, Jexux Mari Mujika ibartarra Iker Vicenterekin batera, Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketan, eta 23 urtez azpiko txapelketan, berriz, Hodei Ezpeletarekin batera aritu zen, Unai Zabala txaramarra. Bi bikoteek hirugarren postua lortu zuten.

Mikel Larrañaga azpeitiarrak, Jon Rekondorekin irabazi zuen Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa, eta Ioritz Gisasola *Zelai IV* eta Suhari Rodriguezek, 23 urtez azpikoa.

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren finala estua izango zela aurreikusten zen. Finaleko hiru bikoteak kanporaketetan pareko emaitzak lortuta iritsi ziren finalera; bina kanporaketa irabazita eta bana galduta. Estua izan zen lehia, batez ere, lehen bi sailkatuen artean. Hau da, Larrañaga-Rekondo eta Txikia IV-Mugertza II.a.

Iker Vicente eta Jexux Mari Mujika ondo hasi ziren, erlojuaren kontrakoa eta zutikakoa kontuan hartuta, baina hortik aurrerako lanetan nabarmen joan ziren atzean gelditzen. Julen



Mujika ibartarra eta Vicente bikotea, txapelketan zehar. UROLA KOSTAKO HITZA

Alberdi *Txikia IV.a* eta Ugaitz Mugertza *Mugertza II.a*, eta Larrañaga eta Rekondok kontrako bidea egin zuten, atzetik aurrerakoa. Oso parean ibili ziren bi bikoteak. Erlojuaren kontra, zutik, abiadura eta zutik/etzanda izan ziren aizkolari bikoteek egin beharreko lanak.

Lanak amaitzean, bost lanetako denborak batuta, minutu bateko aldea baino ez zuten izan lehen bi sailkatuek. Txapeldunek 25 minutu eta 30 segundo behar izan zituzten, eta atzetik, minutu bat gehiagorekin bukatu zituzten lana *Txikia IV.a* eta *Mugertza II.ak*. Mujika eta Vicente, aldiz, 29 minutu eta 15 segundoan bukatu zuten.

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa 23 urtez azpikoen ar-

tean ere egin zuten. Ioritz Gisasola *Zelai IV.a* eta Suhari Rodriguez, Julen Larrea III eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal* eta Hodei Ezpeleta eta Unai Zabala arteko lehia izan zen. Lehen bikoteak eskuratu zuen txapela lanak 9 minutu eta 3 segundoan bukatuta. Bigarren postuan *Larrañaga III* eta *Basozabal* sailkatu ziren, eta zortzi segundo gehiago behar izan zituzten. Eta azken postuan, 11 minutu eta 30 segundoan erlojua geldituz, Ezpeleta eta Zabala bukatu zituzten lanak.

Besteak beste, Emakumeen Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa ere jokatu zen, eta Irati Astondoarentzat izan zen txapela. Atzetik Nerea Sorondo eta Maika Ariztegi sailkatu ziren.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2020KO MARTXOAK 10
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. M8: *Bigarren sexua: orain da atzokoaliburu aurkezpena*, Irene Arrarats eta Uxue Alberdirekin, 19:00etan, kultur etxean.
Tolosa. Mendi Tour: *Nebulaeta Manasulanak* 19:30ean, Leidorren.
Amasa-Villabona. Villabona.dok: *Ahizpatasun hariak*, 20:00etan Gu-reaantzokian.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua eta epela. Goizean agertuko diren erdi eta goi-mailako hodeiak desegin ostean, arratsalde partean zerua erabat urdina izango dugu. Haizeak norabide aldakorra izango du eta tenperatura asko igoko da, goia 17-19 gradu bitartean joaz.

Bihar. Giro are epelagoa. Termometroek beste koska polita egingo dute gora eta udaberri sasoko tenperatura izango dugu, termometroek 20-22 gradu bitartean joko dutelarik goia. Zeruan azken orduetan izan ezik,

apenas ikusiko dugu hodeirik eta giro eguzkitsua nagusituko da.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
16:00. Gure Txokotik. Elkarriketa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. Telefono zenbakia: 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6 behe 1. 943 67 5118.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Elkarriketap (Nerea Caminos)
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:15. Leihotik begira (Elduain)
22:45. Zer jan
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Urte askoan!

Leire. Tolosako Leirek martxoaren 8an 11 urte egin zituen, zorionak eta muxu asko etxekoan partetik.

Hauspoari eraginda zaletzen da herria

Hauspotuz Tolosaldeko Trikitixa Elkarteak antolatuta 'Herria Hauspotuz' ekimena egin dute Larraul-Asteasun. 100 lagun inguru bildu dira bazkaltzeko.

Jon Miranda Asteasu

Duela urtebete inguru sortu zen Hauspotuz Tolosaldeko Trikitixa Elkarte eta aurreko urrian egin zuen Tolosaldeko I. Trikitixa Eguna.

Trikiti zaletasuna zabaltzeko ahaleginean, herrietan ekimenak antolatuko dituzte ikastur-

tean zehar. Aurreneko saioa larunbatean egin zuten Larraul eta Asteasu artean, *Herria Hauspotuz* ekimena antolatuta.

EGUN BOROBILA

Eguna hasteko herriko bertsolariek egin zieten harrera trikiti eta pandero jotzaileei eta lehenengo piezak jo ondoren, Asteasuko

Udalak eskainitako hamaiketakoa banatu zuten. Ondoren, plaza beste saio bat egin ondoren, Usarrabi kiroldegira jo zuten trikitilariek.

Eguerdian, Iturri-Ondo jate-txean egin zuten bazkaria. 100 lagun inguru bildu ziren bertan. Bazkalostean jarraitu zuen festak Asteasun.



'Herria Hauspotuz' ekimena egin zuten larunbatean, Larraul eta Asteasu artean. J.M.

ASTE TXURI-URDINA MARTXOAREN 9TIK 15ERA

Gure txapeldunen garaipen historikoa oroitzeko erretilua ATARIAren eta HITZAren eskutik.

ATARIKIDEEK

~~8€~~ 5€

GAINERAKOAK

~~12€~~ 9€

Bi erosita, hirugarrena opari.

Salmenta puntua:

ATARIAren bulegoa: San Esteban 19, Tolosa

